

Bikain: 2011rako izena emateko epea zabalik

- Euskararen Kalitate Ziurtagiria da Bikain eta zabalik dago jada 2011ko edizioan enpresaren kanpo-ebaluazioa eskatzeko epea. Gogoratu, 10. buletinean adierazi genizuen bezala, Eusko Jaurlaritzak eta Euskalit Fundazioak bultzatutako proiektua dela Bikain.
- Zuen enpresak kanpo-ebaluazioa jasotzeko izena emateko epea apirilaren 19 artekoa da. Aurkeztu beharreko dokumentuak jarraian datorren estekan eskuratu ahal izango dituzu. Gogoratu Bikain ziurtagiriaren bitartez, euskarak enpresa batean duen presentzia, erabilera eta kudeaketa neurtzen direla. Bikain ziurtagiria eskuratzeko diru-laguntza gehigarria jasotzeko aukera ere eskaintzen dizu.
- Eranskinak eta enpresa agiriak behar bezala beteta aurkezteaz gain, gutxienez enpresako kide batek izena eman behar du ebaluatzaileentzako prestakuntza-saioan parte hartzeko.
- Bikain ziurtagiriari buruzko informazio gehiago [hemen](#)



Udaltop, udaletako euskara-zerbitzuen topaketak martxan

- Lasarte-Oriako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Eudelek antolatzen duten Udaltop-en III. Topaketetarako egitaraua prest dugu dagoeneko. Aurten landuko den gaia da: "Zer da euskara euskaraz ez dakitenentzat? Haiek euskarara hurbiltzeko, zer eta nola egin daiteke udaletatik?". Hainbat udal, elkarte eta erakunderen eskarmentua ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen digute topaketok.
- Apirilaren 7an eta 8an egingo dira Topaketak Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean.
- 7an, besteak beste, Emuneko teknikariak izango ditugu hizlari "erdaldunak euskarara eta euskara planetara erakartzeko hausnarketa saioak" gaiarekin. Eta zonalde erdaldun bateko enpresa batean izandako esperientzia pilotuaren emaitzak aurkeztuko dizkigute.
- Euskara planak martxan jarri zirenetik asko aldatu da enpresen edo administrazioen tipologia. Hasieran, eskualde euskaldunetan zeuden enpresek abiatu zituzten planak, eta bertako langileen portzentaje altua euskalduna zen. Gaur egun gauzak aldatzen ari dira, ordea, eta zonalde erdaldunetan ere euskara planak abian jarri dira.
- Informazio gehiago hurrengo buletinean.



Euskarak gaztelaniak adina balio du lanerako"

- Horixe da, Kelseneko Ainhoa Montesek (Planifikazio eta Prozesu-kontrol Saila) *euskararen semafororako* egindako adierazpenetatik jasotako ondorioetako bat.
- *Bai Euskarari Saria* irabazi berri du Reflectarios Kelsenek (Aduna) eta zazpi urte dira euskararen normalizazioan pausuak eman eta lanean ari direla. Montesek esanetan, "Kelsenek lan egitera sartzen diren guztientzat euskara plus bat da".
- Informazio gehiago [hemen](#)

Mintzalaguna proiektua, enpresetan bideragarria?

- Horixe da Bai Euskarari Ziurtagiriaren teknikari den Leire Luengok egin duen galdera. Gogoratu mintzalaguna proiektuaren helburua lagun talde txikiak osatu eta euskaraz hitz egitea dela. Taldea hiru edo lau lagunek osatzen dute, tartean euskaldun zahar bat eta hainbat euskaldun berri. Astean ordu betez edo elkartzen dira euskaraz hitz egiteko.
- Informazio gehiago [hemen](#)



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urdineta eta Usurbilgo Udak. Euskarako Batzordeak.

www.buruntzaldea.org